

2016-02-23ko OHIKO OSOKO BILKURA

Irurako udaletxean, 2016ko otsailaren 23an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesus Leunda Gurruchaga izan da, udalbatzako alkate-lehendakaria, eta gai-zerrendako gaiak aztertzeko, zinegotzi hauek agertu dira:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesus Maria Alonso Insausti, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Jose Ignacio Imaz Bengoechea eta Olaia Nieto Legarra.

-Azaldu ez diren zinegotziak: Ainhoa Ugalde Gorostiaga (ohartarazi zuen ezin zuela etorri).

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, bertara agertu baita gutxieneko partaide-kopurua, Toki Jardunbidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera.

LEHENENGO GAIA:

UDALBATZAREN AZKEN AKTAK (2015-12-22; 2016-01-26) ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

2015eko abenduaren 22ko eta 2016-01-26ko ezohiko bilkuren aktaren zirriborroak aurkeztu dira.

Mikel Iturbe zinegotziak adierazi du bere udal taldea ez dagoela ados 2015eko abenduaren 22ko aktarekin: erantsiko genioke Alonso zinegotziak esandakoak, ez direlako agertzen, hain zuzen ere, "se habrá informado en su entorno, y su entorno lógico es el PNV, que nos asesora pero mucho y otro entorno lógico es su hija, que es doctora en informática". Hori agertzea eskatuko genuke, osoko bilkuran esan zelako.

Alonso zinegotziak hau adierazi du: esos comentarios, tal como está redactado el acta, me parecen lógicos, es una cosa global, decir que nos apoya el PNV, yo soy del PNV.

Alkateak hau erantzun du: yo creo que se debería dejar tal como está. Una cosa es lo que se diga en un momento concreto y otra que se saque del contexto.

Mikel Iturbe zinegotziak hau erantzun du: no existe ningún contexto y él lo ha admitido. Entonces no habría ningún problema para meterlo en el acta.

Alonso zinegotziak hau esan du: sí, pero tal como consta en el acta. El acta lo ha redactado el secretario en unos términos concretos y está de acuerdo.

Olaia Nieto zinegotziak adierazi du idazkariak horregatik grabatzen dituela aktak, gero esandakoa jasotzeko. Egun hartan ezin zen grabatu, baina justu esandako hau grabatuta dago, eta idazkariak aukera dauka eskuratzeko; eta ez doalako inora, ez dakit zergatik ez den onartzen esandakoa agertzea. Bitartean, akta ez dute onartuko.

Alkateak erantzun du berak dagoen bezala onartuko duela.

Mikel Iturbe zinegotziak erantzun du oraindik ez duela bukatu eta gaineratu du: aktaren lehen bertsioan agertzen da PNVk aholkatu ziela eta orain, alderantziz, agertzen da PNVk ez ziela lagundu.

Alkateak erantzun du gauza testuingurutik kanpo esaten dela, oro har PNVk aholkatzen diela, baina kasu honetan ezetz.

Ondoren, alkateak dio ez duela jarraituko horrela eta bozkatu egingo dela.

Mikel Iturbe zinegotziak dio neurriak hartuko dituztela eta, agian, publikatu egingo dutela grabazioa.

Olaia Nieto zinegotziak galdetu dio idazkariari hori legezkoa den.

Idazkariak erantzun du, alde batetik, akta Udalbatzak onartzen duela, eta bestetik, legeak dioela eztabaidaren laburpen txiki bat bakarrik islatu behar dela.

Mikel Iturbek erantzun du gauza bat dela laburpena jartzea, eta beste gauza bat dela alkateak zerbait esatea eta idazkariak ez jartzea, eta zentzu guztia aldatzea.

Idazkariak erantzun du aktak, batez ere, zer akordio izan diren islatzeko direla, zer bozketa egin diren eta taldeen iritziak.

Mikel Iturbe zinegotziak dio, gainera, akta onartu gabe udaleko web orrian agertzen dela.

Idazkariak erantzun du hori bulegoaren akatsa izan dela, normalki aktak arazorik gabe onartzen direlako eta, ahaztu baino lehen, azkar argitaratzen direlako web orrian; baina kasu honetan gaizki egin dela.

Bozketa egin ondoren 2015-12-22ko akta onartzen da : aldeko 5 boto (EAJ/PNV) eta aurkako 3 (EH Bildu).

Olaia Nieto zinegotziak esan du aurka bozkatu dutela, ez aktaren aurka daudelako, baizik eta ez delako agertzen esandakoa .

Jose Ignacio Imaz zinegotziak dio grabea dela aktarekin zer gertatzen ari den, grabazioa dagoela eta aktan esandakoaren justu aurkakoa jarri dela, eta garbi dagoela zer ez den esan nahi, izan ere, PNVk asesoratu dituela gai honetan, eta oso nabarmen geratuko dela bi aktak parean jartzen badira. Oso erabaki arriskutsua hartu dutela, oso nabarmen geratuko dela, eta gero prentsan agertu daitekeela, eta abar.

Alkateak erantzun du lehen borradorean gaizki zegoela eta zuzendu dela.

Mikel Iturbek erantzun du gauza bat dela hitz bat argitzea eta beste gauza bat esandakoa aldatzea, lehen bai eta gero ez, hori manipulazioa iruditzen zaiola.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak bi gauza gehiago gaineratu ditu: idazkariaren aldetik grabea iruditzen zaio akta horrela desitxuratzea, lehenengoz, berak jarri zuen PNVk asesoratu zuela erabakia hartzeko, gero, ezezkoa jartzea eta, azkenekoz, ustelkeria kasu baten usaina nabaritzen duela, eta ez dela Balentziara joan behar; estaltzen ari dira PNVko aholkularitza jaso dutela, eta hitz horiek grabatuta daude, eta grabazio hori eta bi aktak web orri batera joango dira. Eta grabazioan bezala agertzen bada idatzita aktan, beraiek amaitutzat joko dute gai hau, beraz eskatzen du esandakoa aktan agertzea. Ezkutatu nahi dute PNVko aholkularitza izan dela gai honetan, eta, beste aldetik, hori horrela izatea oso logikoa iruditzen zaio.

Alkateak erantzun du PNVko aholkularitza jasotzen dutela oro har, baina kasu honetan ezetz.

2016-01-26ko akta aho batez onartu da.

BIGARREN GAIA

ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2016/14 DEKRETUTIK 2016/34 DEKRETURA ARTE. Alkatezaren dekretu hauen berri ematea:

Alkateak dekretu hauen berri eman dio Udalbatzari: 2016ko 14. zenbakitik 2016ko 34 zenbakira bitartekoak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN GAIA

2016-01-26ko 18/16 ALKATE-DEKRETUA BERRESTEA (UDALEKO LANGILEEN ORDAINSARIAK %1 IGOTZEA), HALA BADAGOKIO.

2016-01-26ko 18/15 Alkate-dekretua jakinarazi da:

“2016rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko urriaren 29ko 48 2015 Legearen 19. artikulua jasotako betez, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak ezingo dira, homogeneotasun-terminoetan, % 1 baino gehiago igo 2015eko abenduaren 31n indarrean daudenekiko, erkatutako bi denboraldietarako, langile-baliabideei nahiz haien antzintasunari dagokienez.

Ikusita Eudelek 2015-12-10ean Udaltzako talde-negoiazioari buruz igorritako gutuna ildo horretatik.

Ikusita Udaltzako honetako kargu publikoen ordainsariak behin adostuta udaltzako langileek izan dutenaren antzeko bilakaera eduki dutela.

Aintzat hartuta premiako arrazoiak badirela urtarileko nominan aipatu den igoera sartzeko.

Hori dela eta,

ERABAKI DUT:

Lehen.- Ontzat ematea Irurako Udaltzako langileen ordainsariak % 1 igotzea, bai funtzionarioenak bai langile eta kargu publikoenak, 2015eko abenduaren 31n indarrean daudenekiko.

Bigarrena.- Erabaki honek ez die kalterik egingo 2016rako langileen arloko lan-baldintzen inguruan hartutako erabakiei.

Hirugarrena.- Toki Araubidearen

“De acuerdo con lo dispuesto en el art. 19 de la Ley 48 2015 de 29 de octubre, de Presupuestos Generales del Estado para 2016, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al 1 por ciento respecto a los vigentes a 31 de diciembre de 2015, en términos de homogeneidad para los dos periodos de comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo.

Vista la circular de Eudel de 10-12-2015, en relación con la negociación colectiva Udaltzako, en el mismo sentido.

Visto que las retribuciones de los cargos públicos en este Ayuntamiento una vez acordados han tenido una evolución similar al del personal municipal.

Considerando razones de urgencia, para incluir en la nómina de enero la citada subida.

Ante ello

RESUELVO:

Primero.- Aprobar un incremento del 1% de las retribuciones del personal de este Ayuntamiento de Irura, tanto funcionario como laboral y el de los cargos públicos, respecto a los vigentes a 31 de diciembre de 2015.

Segundo.- Este acuerdo se adopta, sin perjuicio del acuerdo que se adopte en materia de condiciones laborales en materia de personal para 2016.

Tercero.- Dar cuenta al Pleno de

apirilaren 2ko 7/1985 legearen 22.2 artikulua i) atalean jasotakoa betez, Udaleko Osoko Bilkurari jakinaraztea egingo duen lehenengo bileran, hala badagokio, onar dezan.”

la Corporación, en la primera sesión que celebre, de acuerdo con lo dispuesto en el art. 22.2, apartado i) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases de Régimen Local, para su aprobación, si procede.”

Aho batez berresten da.

LAUGARREN GAIA ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN KONTRATUA LUZATZEA, HALA BADAGOKIO.

2013ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Irurako Udalbatzak etxez etxe laguntza zerbitzua kontratatzea erabaki zuen eta Baldintza Ekonomiko eta Teknikoak onartu zituen.

Ondoren, 2014ko otsailaren 11ko 21/14 Alkate-dekretuaren bidez, kontratua Ilarki enpresari behin betiko esleitzeko erabakia hartu zen.

Zerbitzuaren iraupena bi urtekoa izango da, 2014ko martxoaren batetik kontatzen hasita, eta urtero luzatu ahal izango da, gehienez ere beste bi urtez.

Udal zerbitzuen txostena ikusita, Udalbatzak aho batez hau onartu du:

E R A B A K I A :

Etxez Etxeko laguntza zerbitzuaren kontratua beste urtebete luzatzea, 2017ko martxoaren 1era arte, Ilarki enpresarekin.

BOSGARREN GAIA UEMAREN 2016KO EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

2016ko urtarrilaren 23an, Zarautzen egindako UEMAren Batzar Nagusian 2016rako kuotak onartu ziren.

Irurari 6.408 euroko ekarpena egitea dagokio, 1501-2000 biztanle kopuruaren tartean sartzen delako.

Euskara Batzorde Informatiboak 2016ko ekarpenaren aldeko proposamena egin du.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez hau erabaki du:

1.-2016 urteari dagokion ekarpena onartzea (6.408 €) eta ordainketa egitea.

2.-Gastua 1.0000.421.420.00.00.2016 partidaren kontura izatea.

3.-Erabakia euskara teknikariari eta interesatuei jakinaraztea

SEIGARREN GAIA

EH BILDU TALDEAREN "IPAR ATLANTIKOKO MERKATARITZA ETA INBERTSIOAREN HITZARMENA (TTIP INGELESEZ) APLIKATZEAREN KONTRAKO UDAL ADIERAZPENA" MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

EH Bildu udal Taldeak Mozio hau aurkeztu du: "Ipar Atlantikoko Merkataritza eta Inbertsioaren Hitzarmena (TTIP ingelesez) aplikatzearen kontrako udal aitortpena".

Talde politikoa Bildu.

Udala: Irurako Udala.

"Goian adierazitako udalerriko talde politikoaren zinegotziek, eztabaidatzeko, eta hala balegokio, onesteko, hurrengo MOZIOA aurkezten dute: Ipar Atlantikoko Merkataritza eta Inbertsioaren Hitzarmena (TTIP ingelesez) aplikatzearen kontrako udal aitortpena, hurrengo zioen oinarrituta:

ZIOEN ADIERAZPENA

2013. urtean Europako batzordeari Europako Batasunaren (EB) estatuek agindua eman zioten, Ameriketako Estatu Batuekin (AEB) Ipar Atlantiko Merkataritza eta Inbertsio Hitzarmena negoziatzeko (ATIC, edo ezagunagoa den TTIP, ingelesez; edo baita Atlantikoz gairikoa Merkataritza Librearen Hitzarmena (TAFTA) izenez ezagutzen dena). Teoriaz hitzarmen horren helburua EBren eta AEBen arteko merkataritza handitzea zen mugazergak murriztuz, eta enplegua, hazkunde ekonomikoa eta lehiakortasuna handituz.

Europar Batasuna (EB) eta Ameriketako Estatu Batuak (AEB) negoziazioa bideratzen ari dira, merkataritza eta inbertsioen eremu liberalizatua eraikitzeko, herritarrak eta ordezkari politikoak (nazioetako parlamentuak zein europar parlamentua) albora utzita. Horrek guztiak berekin dakar demokrazia, lan eskubideak eta osasun eta ingurumen eskubideak arriskuan jartzea, lehentasuna ematen baitie inbertitzaileen eta enpresa transakzionalen merkataritza interesei, guztion interesei eman beharrean. Informazioa erabat mugatua izateak eta negoziazioetan partaide kopurua oso txikia izateak herrien eta hirien kritika gogorrak jaso ditu, negoziazio horien emaitzek eragin handia izango baitute lurralde horietan.

EBren barruan lurralde gobernuek eskubidea dute informazioa jasotzeko European onetsiko den eta haien lurraldeetan eragina izango duen legediaren gainean. Eta horrela, bide batez, eskubidea izango dute iritzia adierazteko. Lurralde guztiei eskubide horiek ukatu egin zaizkie, TTTPen gainean negoziatu duten edukiari dagokionez.

AEBek eta EBk TTIPen inbertitzaileak babesteko neurriak sartu nahi dituzte. Eta inbertitzaile batek estatu batekin desadostasunik izanez gero, arbitraje batzorde bat, "Investor-to-State Dispute Settlement" (ISDS) izenekoa, desadostasun horiek ebazteaz arduratuko da. Batzorde horrek eskumenak izango ditu zehazteko estatuek zer konpentsazio ekonomiko eman behar dizkieten inbertitzaileei, baldin eta inbertitzaile horiek frogatzen badute estatuek konpainiaren etorkizuneko etekinak murriztuko lituzketen zenbat neurri aplikatu dituztela (hala nota, ingurumena babesteko estandarrak igotzea). Estatuek horrelakoetan epaitegietan erabakiaren kontra helegitea aurkez dezakete eta beharbada irabaz dezakete, baina horrek prozesuaren izugarritzko kostu handiak ekarriko dizkie. Gainera, arbitraje batzordeen erabakiak irmoak dira eta ezin da gora jo.

EBk eta AEBek garapen bidean dauden herriekin sinatzen dituzten akordioetan ISDS bezalako erakundearen arauak oso ohikoak badira ere - lege erabakietan nolabaiteko aurreikuspenak ziurtatzearen-, ez da horrelako araurik behar, herrialdeek lege eta epaiketa sistema garatuak dituztenean, hala nola, Europako Batasunak eta Ameriketako Estatu Batuek.

Halaber, herritarrei interesatzen zaie zerbitzu publikoak eraginkorrak izatea, bizi kalitate ona ziurtatzeko. Lisboako Itunak Europako Batasuneko estatu kideei eskumena onartzen die, batetik, zer zerbitzu diren interes orokorrekoak erabakitzeko; eta bestetik, zerbitzu horiek antolatzeko. Beraz, Hitzarmenaren terminologiak EBko itunekin bat etorri beharko du, eta Lisboako Itunarekin bereziki; itun horrek funtsezko garrantzia duelako "interes orokorreko zerbitzuei" dagokienez. Hori dela eta, "onura publikoa" terminologia ez da egokia, eta hori da, hain zuen ere, Hitzarmenean jasotzen dena.

Zerbitzu publikoek segitzen dute aldaketa politiko, teknologiko eta sozialekin batera etengabe aldatzen. Baina horiek ez bezala, merkataritza hitzarmenek politika publikoak murrizteko arriskua dakarte, "balazta klausulen" bitartez, batez ere zerbitzu publikoen alorrean.

Kontratazio publikoari dagokionez, TTIPen bidez helburu hau lortu nahi da: Munduko Merkataritza Erakundearen (WTO) Kontratazio Publikoaren Akordioa (GPA) mantendu nahi da, beste akordio hobetu bat sortu arte. EBko batzordea GPA erabiltzen ari da kontratazio publikoaren legearen bermeak murrizten ari direla arrazoitzeko. Edozein akordio motak, baita kontratazio publikoak ere, bermeak handitu behar ditu; eta ez murriztu. Akordio horrek ezin ditu EBko kontratazio publikoaren legearen arlo progresiboak arriskuan jarri, eta are gutxiago lurraldeetako eta tokietako garapena ahalbideratzen duten horiek. Arlo horiek garrantzitsuak dira, ahalbideratzen dutelako, kontratazio publikoak egiterakoan, prezioa ez ezik bestelako faktoreak ere kontuan hartzea, hala nola, inguramenari eta gizarteari dagozkienak.

TTIpek hurrengoak ditu helburu: herri zerbitzuak erabat liberalizatzea, ETNei zerbitzu horiek emateko aukera eskaintzea, eta enpresa horiei herri administrazioen ondasun eta zerbitzu guztiak erosteko eta lizitatzeko aukera zabaltzea. Horren ondorioz, hitzarmenak, boterearen maila guztietan, arriskuan jartzen ditu zerbitzu eta erosketa publiko guztiak; eta hautatutako ordezkarien eskumena murrizten du tokiko erkidegoak kudeatzeko eta tokiko industria, enplegua eta ekimenak sustatzeko.

Horrela bada, merkataritza legeak beste edozein gizarte-gairen gainean nagusitzen dira eta bazter uzten dituzte kontinenteko, nazioko, lurraldeko edo herrialdeko lege guztiak. Egitura-doikuntza murriztaileek tokiko erkidegoak ere menperatzen dituzte, merkataritza librea eta inbertitzaileen interesak babesteko politikak gailentzen ari direlako. Politika horiek zerbitzu publikoak suntsitzen dituzte eta tokiko botereei askatasuna kentzen die zerbitzu publikoak emateko eta herritarren gizarte beharrak asetzeko, tokiko industria eta enplegua garatu eta suspertzeko politikak eta planak erabiliz.

Europako herriek eta hiriek badakite zer garrantzia duen salgaien eta zerbitzuen merkataritzak bere herritarren ongizatean. Hala eta guztiz ere, lehiakortasuna eta garapen ekonomikoak ez lukete irizpide bakarrak izan beharko TTIP bezalako merkataritza hitzarmenak onartzeko. Ingurumena eta gizartea babesteko arloak ere kontuan hartu behar dira, bi alderdiren arteko merkataritza akordioak onesteko. Era berean, analisi konparatiboak egin beharko liriateke aztertzeke, batetik, alderdi horietan hitzarmenak sortuko lituzkeen kostuak; eta bestetik, hitzarmenak ekarriko lituzkeen balizko onurak. Beraz, analisi horrek balizko ondorio ekonomikoak ez ezik, bai EBko bai AEBetako gizartean, ekonomian, osasunean, kulturak eta ingurumenean sortuko lituzkeen ondorioak ere aztertu beharko liriateke.

Tokiko administrazioek:

Herritarren beharretatik hurbil dauden neurrian, ATICen helburuetan esku hartu behar dute, eta horien aurrean erantzuna eman, ez badute herritarrei laguntzarik ez ematea eta planeta arriskuan jartzea leporatzerik nahi.

Zerbitzu publikoak eta tokiko industria eta enplegua sustatzeko bide egokiak diren neurrian, horiek sustatzeko ahalegina egiten dute guztion onerako.

Gizarte, ekonomia eta ingurumenaren erronkei erantzuna eman behar diete; eta ondorioz, zerbitzu publiko unibertsalak eta herritarren babesak defendatu behar dute.

Tokiko komunitateek eztabaida eta gogoeta publikoa eta demokratikoa zabaldu nahi dute, hitzarmen honen aplikaziotik sortuko den egoeraren gainean eta zerbitzu eta erosketa publikoen etorkizunaren gainean:

Merkataritza eta inbertsioak ekonomian eta gizartean bakarrik onuragarriak izango dira, tokian tokiko giza beharrak errespetatzen badira, eta azken xedea espekulatzailer finantzarioen eta enpresa multinazionalen etekina ez bada.

Zerbitzu publikoak etengabe eta era programatuan deuseztatzeak berekin dakar etengabe eta era programatuan elkartasuna eta demokrazia ere deuseztatzea.

Zerbitzu eta erosketa publikoak konkurrentziari ahalik eta gehien zabaltzeak ondorio kaltegarriak dakartza, sarbideari, kalitateari eta kostuari dagokionez.

Gizarte eskubideak besterezinak direnez, ezin dira inolaz ere merkatuaren logikaren menpe egon.

Gizarterako onuragarriak diren zerbitzu publiko anitzak egoteak guztiontzako eta toki guztietan kalitatezko bizimodu duina ziurta dezake-, demokraziaren benetako erabilerarekin bat etorritz.

Kontrol publikoa bermatu behar da, guztiok ondasunetara iritsi gaitzen eta tokiko industria eta enplegua susta dadin.

Hori dela eta, hurrengoa proposatzen dugu:

MOZIOA

1. Irura udalerria udalerrri intsumisioa eta TTIPen kontrakoa dela aitortzen dugu; halaber, oinarritzko zerbitzu publikoak. elkartasunerako eta gizarte birbanaketarako defendatzen dugu.

2. Estatuko Gobernuaren Herri Administrazioen. Ministerioari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diegu gizarterako onuragarriak diren zerbitzuek izaera publikoa mantentzea helburu duten ekimen guztiei laguntzea.

3. Ekonomia Ministerioari eskatzen diogu TTIPen negoziazioak bertan behera uzteko, hurrengo helburuak lortzeko:

Ez akordio honetan ez beste akordio batean ISDS bezalako mekanismorik ez egotea.

EBk eta horko estatuek duten erregulazio politika defendatzea, lan araudietan, kontsumitzaileen babesean eta ingurumenaren babesean eskumenik ez gal ez dezaten

Hitzarmena alderdi ekonomikoetara ez mugatzea eta gizartearen eta ingurumenaren helburuak ere garrantzitsuak izatea eta berdin lantzea.

Negoiazioetako gardentasun faltari amaiera ematea, jendaurrean informazio guztia jartzea eta EBn eta estatuetako departamentuetan eztabaida publikoa zabaltzea.

Bai zerbitzu publikoak bai jabego intelektuala hitzarmenetik kanpo geratzea.”

Beste aldetik, PNVko udal taldeak beste mozioa hau aurkeztu du:

“2013. urtean, Europar Batasunak, bere Estatu kideen eskutik agindu bat jaso zuen Europa eta Amerikako Estatu Batuen arteko Merkataritza indartzeko asmoz, AEBekin, Merkataritza eta Inbertsiorako Hitzarmen transatlantikoa (TTIP) negoziatzekoa, horretarako indarrean zeuden mugak gutxituz. Muga horiek, zati batean muga zergak dira, zerga horiek ez diren arren oso garestiak orokorrean baina, neurri handian, bi erregioen arteko merkataritzari zailtasunak ezartzeko araudiak dira, eta honek TTIParen aurkako kanpaina sistematiko bat ekarri du, alderdi politiko, sindikatu, talde ekologista eta orokorrean “ezkerraldeko alternatiba” bezala ezagutzen den ideologian sailka ditzakegun inguruneetatik.

Ikuspegi horretatik esaten da, TTIParen negoziazioak, iritzi publikoari bizkar emanez eta iluntasunez ari direla gauzatzen transnazional handien interesak soilik babesteko asmo bakarrez, arrisku larrian jarriz demokraziaren kontzeptua bera, ez legeztaturiko konpetentzia askera irekiz merkatuak, erakunde publikoek zerbitzu publikoak eskaintzeko ahalmena bera ere arriskuan jarriz, politika publikoen arlo guztietan pribatizaziorako bidea irekiz, ingurugiroaren edo hiritarren osasunerako eskubidearen lege babes gutxiengoak murriztuz; nekazaritza transgenikoari ateak irekiz, langileen eskubideak desagerraraziz eta orokorrean, “ Europar gizarte ongizatearen eredu” bezala ezagutu dugun guzti hori desagerraraziz.

Egia da TTIParen negoziazioaren lehen aldiak, ateak itxita burutu direla eta ez zaiola ia informaziorik zabaldu europar hiritargoari.

Baina egia da ere azken urteetan, munduan zehar polo komertzialen pisua aldatzen joan dela, eta Europa, munduko merkataritzaren erdigunean egotetik, alboratzen joan dela, mundu osoko merkataritzaren zirkulazio nagusia Pazifiko aldera joaten ari denean, Txina bezalako herrien ahalmenak erakarrita.

Merkataritza mugimendu horiek, geostrategikoki, europar ekonomiaren ahultasuna dakarte, orokorrean eta euskal ekonomiarena, zehazki.

Ez dago zalantzarik, beste iritziak iritzi, Europa eta AEB arteko Merkataritza eta Inbertsio askeko tratatu batek, geografikoki erdigunean kokatuko gintuzkeela, oso kanpoaldean egongo ginateke aldiz, oraindik orain Pazifikoan ematen diren merkataritza fluxuak egonkortuz gero.

TTIParen aurka gehien errepikatzen den salaketa zuzen zuzenean demokraziaren aurka dagoela da, enpresa transnazional eta Estatuaren arteko arazoak konpontzeko nazioarteko arbitraje mekanismoak indarrean jarri izanak, ohiko Tribunal nazionalen ahalmena baztertuz, Erakunde publikoak eta Estatuak, inbertsora handien erreklamazioen aurrean indargabe utziko lituzkeelako, ustez. Aldiz, hori esaten duena, ahaztu egiten da nahita nazioarteko arbitraje mekanismoak egon badirela, eta enpresek Estatuaren aurrean erreklamazioak jartzeko ahalmena daukatela (eta egiten dutela), duela hamarkada askotatik, besteak beste, Munduko Banku beraren foroan. Adibidez, Espainiako Estatuaren aurka jarritakoak energia berriztagarrien multinazionalak, primak kendu izanagatik.

Gainera, Europar Komisia, Europar Parlamentuak berak hori horrela ez gertatzeko eskatuta, mezuak zabaltzen joan da, zeinak, TTIPak zerbitzu publikoetan (osasuna, ura, hezkuntza..) eragingo dutela eta Estatuak politika publikoak legezatzeko eta arautzeko ahalmena galduko dutela gezurtatzen duten.

Eta azkenik, zaila da TTIPek transnazionalen akzioan aldeko jauzi handia ekartzea, enpresa handiek interesatzen zaizkien merkatu guztietan eragiten dutenean eta jokatzeko ahalmen handienak dituzten enpresak dira estatu eta herrietako legeen gaineratik. Printzipioz, logikoago dirudi pentsatzea, EB eta AEBen arteko merkataritzari trabak kentzeak, enpresa ertain eta txikiei gehiago lagunduko diela bere nazioartekotze lanean.

Kontutan izan behar da Hitzarmena, europar erakundeez gain Estatu kide bakoitzeko legebiltzarrek onartu beharko dutela ere.

Hau guztia esanik, eztabaidatu eta onartu dadin, ondorengo proposamena egiten da:

Mozioa:

Irurako udalak, Europako Komisia, Europar Batasuna eta Amerikako Estatu Batuen arteko, Merkataritza eta Inbertsiorako Hitzarmen transatlantikoari buruzko tratatuaren negoziazio prozedura guztian beharrezko gardentasuna bermatzera premiatzen du.

Uste du Hitzarmenari buruz indarrean dauden negoziazioek, industriaren interesak eta lehiakortasuna eta Europako sektore ezberdin guztien interesak defendatu behar dituela, kontsumitzaileen, bere datuen, osasunaren eta segurtasunaren babes maila altua bermatuz eta giza, lan, fiskal, eta ingurugiro "dumping" deritzona ekidinez, Europar gizarte ongizate eredu deiturikoaren etorkizuneko jasangarritasuna babestuz.

Europako Legebiltzarra (TTIP) hitzarmena edo, Europako kalitateen estandarrei buruzkoa, Nazioarteko Lan Erakundearen (ILO) disposizioen markoan lan eskubideei eta hiritarrentzako zerbitzu publiko eta sozialen babesari buruzkoak, halaber interes publikoaren defentsan erregulatzeko eskubide demokratikoaren babesari buruzko beste edozein hitzarmen, berretsita egotera baldintzatzen du.

Eta, orokorrean, aintzakotzat hartzen ditu TTIParen negoziaketarako Europako Legebiltzarrak 2015eko uztailaren 8ko bere ebazpenean gehiengoz onartu zituen aholkuak.”

Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du Bilduk mozio hau aurkeztu duela, eta esan du akordio hau oso arriskutsua izango dela, Europako erregulazioa aldatuko duelako, eta horrek erregulazio gutxiago esan nahi duela, kapitalismo salbajea; eta horrek kaltetuko duela ahulena (langileak, enpresa txikiak...); eta ingurumen aldetik Europako arauak gehiago malgutzen badira, sartuko dituztela fracking, transgenikoak eta antzeko gaiak. PNVko mozioa irakurrita, badirudi akordioaren aldekoak direla.

Alkateak erantzun du beraiek gardentasunez jokatzearen alde daudela eta denon interesak defendatu behar direla.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak galdetu dio alkateari ea horrek esan nahi duen TTIP sinatzearen aldekoak diren.

Alkateak erantzun du horrela izan zela Europako Legebiltzarrean.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak galdetu du ea zergatik pentsatzen duten akordio hori ona izango dela Europarako eta Euskal Herriarentzako.

Alkateak erantzun du adituek horrela esaten dutelako.

José Ignacio Imazek erantzun du PNV modelo neoliberal honen alde dagoela, eta horrek esan nahi duela boteretsuentzat irabaziak egotea eta ahulentzat prekarietatea.

Alkateak erantzun du eskatzen dutela akordio horiek gardentasunez egitea eta guztion interesak defendatzea.

PNVk aurkeztutako mozioa bozkatu da, eta onartu egin da aldeko 5 botorekin (EAJ/PNV) eta aurkako 3 botorekin (EH Bildu).

Jose Ignazio Imaz zinegotziak adierazi du Bilduk PNVren mozioaren aurka bozkatu duela, bere ustez TTIP defendatzen duelako.

ZAPIGARREN GAIA

SEAD-EN ALDARRIKAPENAREN 40. URTEURRENA DELA-ETA, ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Adierazpen hau aurkezten da:

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA SEADen
ALDARRIKAPENAREN 40. URTEURRENA
DELA ETA

Gaur, 2016ko otsailak 27, 40. urteurrena betetzen da Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zela eta Irurako udalak bat egin nahi du gertakari historiko

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL CON
MOTIVO DEL 40º ANIVERSARIO DE LA
PROCLAMACIÓN DE LA RASD.

Hoy, 27 de febrero de 2016 se cumple el 40º aniversario de la proclamación de la República Árabe Saharaui Democrática y el Ayuntamiento de Iruña quiere sumarse a este acontecimiento histórico y demostrar un año más su firme compromiso con el Pueblo

horrekin eta beste urte batez ere garbi erakutsi nahi du Saharar Herriarekin duen konpromiso tinkoa.

ACNUR, Nazio Batuen Erakundeko errefuxiatuen agentziak salatu zuenaren arabera, Saharar errefuxiatuen kanpamenduetan 2015eko urrian eroritako uholde-euriek 90.000 lagun baino gehiagori eragin diete, hauetako 25.000 pertsonek etxea galdu dute eta jakirik gabe geratu direlarik.

UPV EHUko Hegoa Institutuak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak Euskal Fondoaren sostenguarekin burututako hainbat ikerkuntzak froga berriak ekarri dituzte Marokoko Gobernuak saharar herritarren artean egindako bortxazko desagertzei eta bonbardaketei buruz. Ikerkuntza horiek, gainera, baliagarriak izaten ari dira Saharar Herriaren aurkako genozidioagatik jarritako kereilaren ikerketan, eta egia, justizia eta ordainketa lortzeko eskarrietan.

Hori guztia dela eta, Irurako udalak ondorengoa adierazten du:

1. Berretsi egiten du RASDeko gobernu legitimoa eta Fronte POLISARIOA errekonozitzen dituela, eta behin berriro aldarrikatzen du Saharar Herriak legez duen autodeterminatzeko eskubidea. Era berean, Espainiako Gobernuari eskatzen dio eman diezaiola estatus diplomatikoa Fronte POLISARIOAren Espainiako Ordezkaritzari, bera baita Saharar Herriaren ordezkari bakar eta legitimoa, NBek hala aitortua.
2. Espainiako Gobernuari eta nazioarteko komunitateari eskatzen die bultzatzea beharrezko ekimen politiko guztiak konponbide zuzen eta behin betiko bat erdiesteko, erreferendum baten bidez, Nazio Batuen ebazpenen arabera.
3. Marokoko agintariei eskatzen die bertan behera utz dezatela giza eskubideen alde diharduten saharar aktibisten aurkako jazargoa, saharar

Saharai.

Las lluvias torrenciales caídas en octubre de 2015 en los campamentos de población refugiada saharai han afectado a más de 90.000 personas, 25.000 de los cuales han perdido sus hogares y se han quedado sin alimentos, según denunció la Agencia de las Naciones Unidas para los Refugiados (ACNUR).

Diversas investigaciones llevadas a cabo por el Instituto Hegoa de la UPV-EHU y la Sociedad de Ciencias Aranzadi, con el apoyo de Euskal Fundazioa, han aportado nuevas pruebas sobre desapariciones forzadas y bombardeos a la población civil saharai a manos del gobierno de Marruecos. Además, estas investigaciones están siendo útiles en la investigación de la querrela por genocidio contra el Pueblo Saharai y en las demandas de verdad, justicia y reparación.

Por todo ello, el Ayuntamiento de Irura manifiesta lo siguiente:

1. Reafirma su reconocimiento al legítimo gobierno de la RASD y al Frente POLISARIO y manifiesta, una vez más, el derecho de autodeterminación que legalmente asiste al Pueblo Saharai. Asimismo le pide al Gobierno de España que le dé el estatus diplomático a la Representación del Frente POLISARIO en España, único y legítimo representante del Pueblo Saharai, reconocido así por la ONU.
2. Insta al Gobierno de España y a la comunidad internacional a que promuevan todas las iniciativas políticas que sean necesarias para lograr una solución justa y definitiva, mediante la celebración de un referéndum, conforme a las resoluciones de Naciones Unidas.
3. Insta a las autoridades marroquíes a que cesen las persecuciones contra los y las activistas saharais de derechos humanos, a que liberen a los presos políticos saharais y esclarezcan el destino de más de 400

preso politikoak aska ditzatela eta argi dezatela desagertutako 400 saharar baino gehiagoren patua.

4. Espainiako Estatuari eskatzen dio har dezala bere gain duen erantzukizun historikoa; aktiboki lan egin dezala Europar Batasunaren barruan eta aprobetxa dezala Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluan dagoela, MINURSOri luzatu dakion Mendebaldeko Saharan giza eskubideak zaintzeko emana duen agindua.
5. Berretsi egiten du bere konpromisoa lan egiteko bai Tindufen (Aljeria) babestuta dauden errefuxiatu-kanpamenduetan, bai Marokok legez kontra okupatutako lurraldeetan, Euskal gizarteak Saharar Herriak bere askatasunaren alde daraman borroka zilegiari ematen dion sostenguaren erakusgarri.
6. Bene-benetan eskertzen du euskal herritarren lankidetzaren interes-gabea eta eskuzabaltasuna, horiei esker aurrera eramán daitezkeelako Saharar Herriarekiko lankidetzaren proiektuak, hala nola den euskal elkartasun-karabana, Oporrak Bakean, e.a.

Udalbatzak aho batez onartu du.

Galdera eskarien atalaren aurretik ondorengo gaia tratatu da, presazko egoera adierazi baitute, aho batez, batzarkideek, eta hauek udalbatzarraren partaideen legezko gehiengo osoaren botoa osatzen baitute:

sahararri desagereidos.

4. Insta al Estado español a que asuma su responsabilidad histórica y trabaje activamente dentro de la Unión Europea y aproveche su presencia en el Consejo de Seguridad de Naciones Unidas para que la MINURSO vea ampliado su mandato a la vigilancia de los derechos humanos en el Sáhara Occidental.
5. Se reafirma en su compromiso de trabajar tanto en los campamentos de población refugiada en Tinduf (Argelia), como en los territorios ilegalmente ocupados por Marruecos como muestra del apoyo mayoritario de la sociedad vasca a la legítima lucha del Pueblo Saharaui por su libertad.
6. Agradece sinceramente la colaboración desinteresada y la generosidad de los ciudadanos y las ciudadanas vascas que hacen posibles proyectos de cooperación con el Pueblo Saharaui, tales como la Caravana vasca solidaria, Vacaciones en Paz, etc.

ZORTZIGARREN GAIA

MARTXOAREN 8KO EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNAREN ADIERAZPENA ONARTZEA.-

Alde batetik aurkezten da Eudelen adierazpen proposamena:

Udallerri eta Eskualdeetako **Gobernuek bat egin dute** **Emakumeen eta Gizonen arteko** **Berdintasunaren alde, Europan eta** **Munduan**

Europako Udallerri eta Eskualdeen Kontseiluko (CCRE-CEMR) Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasuna Tokiko Bizitzan Sustatzeko Batzorde Iraunkorrek adierazi du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna funtsezko eskubidea eta oinarrizko balioa dela demokraziarentzat. Tokiko eta eskualdeetako gobernuek herritarrengandik gertuen dauden esferak dira, eta, hortaz, esku-hartzerako maila garrantzitsuak dira oraindik ere dirauten desberdintasunei aurre egiteko eta emakumeen eskubideak Europan eta mundu osoan sustatzeko.

Emakumeen Nazioarteko Egun honetan, **2016ko martxoaren 8an, tokiko eta** **eskualdeetako gobernuen ordezkariak** **helburu hauen inguruan elkartu dira:**

- Gogoratzea demokrazia ezin eraiki daitekeela emakumerik gabe, eta, horrenbestez, beharrezkoak diren neurriak hartu behar direla, maila guztietan ótokikoa, eskualdekoa, estatukoa eta Europakoa-, emakumeek eta gizonen parte-hartze berdina izan dezaten erabakiak hartzeko prozesuetan;
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gure balioen eta europar gizartearen oinarrizko elementua dela bermatu dezatela eskatzea estatuetako gobernuetara eta Europako instituzioetara; beraz, elementu horrek agenda politikoaren erdigunean egon behar du, eta politika eta lege garrantzitsu guztietan txertatu behar da;
- Berdintasunaren aldeko konpromiso formal bat hartu dezatela eskatzea Europako hiri eta eskualde guztietara, CCRE-CEMRk 2006an plazaratu eta

Gobiernos locales y regionales juntos en **favor de la igualdad de mujeres y** **hombres en Europa y en el mundo**

El Comité Permanente por la Igualdad de Mujeres y Hombres en la Vida Local del Consejo de Municipios y Regiones de Europa (CCRE-CEMR) afirma que la igualdad entre mujeres y hombres es un derecho fundamental y un valor central de la democracia. Los gobiernos locales y regionales, siendo las esferas de gobernanza más próximas a la ciudadanía, son fundamentales para abordar las persistentes desigualdades, y promover los derechos de las mujeres en Europa y en el mundo.

En este 8 de marzo de 2016, Día **Internacional de las Mujeres,** **representantes de gobiernos locales y** **regionales se comprometen a:**

- Recordar que la democracia no se puede construir sin las mujeres, con lo que es ineludible la adopción de todas las medidas necesarias a todos los niveles (local, regional, estatal y europeo) para conseguir una participación igualitaria de mujeres y hombres en los procesos de toma de decisiones;
- Hacer un llamamiento a los estados y a las instituciones europeas para que ratifiquen la igualdad de mujeres y hombres como elemento central de nuestros valores y de las sociedades europeas; por este motivo debe ocupar un puesto central en la agenda política y ser integrada en todas las políticas y legislaciones relevantes;
- Llamar a las ciudades y regiones de Europa a adquirir un compromiso formal en favor de la igualdad firmando la Carta Europea para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la Vida Local, auspiciada por el CCRE-CEMR en 2006, que ha sido

dagoeneko 1.500 hiri eta eskualdek baino gehiagok sinatu duten Tokiko Bizitzan Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna Lortzeko Europako Gutuna sinatzearen bidez;

- Berdintasuna eskualde eta toki mailan sustatzeko neurri politiko konkrituak hartu ditzatela eskatzea Gutunaren sinatzaileei, CCRE-CEMRk Behatoki¹ honen bidez eskura jartzen dituen tresnak erabiliz, estatu bakoitzean tokiko eta eskualdeetako gobernuak ematen zaizkien botereen arabera; eta horren inplementaziorako beharrezkoak diren finantza eta giza baliabideak eskaini ditzatela.
- Emakumeek XXI. mendean pairatzen jarraitzen duten indarkeria salatzea: bizitza pribatuan zein publikoan emakumeen aurka zuzentzen den indarkeria forma guztiei aurre egin behar zaie eta ezabatu egin behar dira, honako forma hauek barne sartuta: emakumeen trafikoa, sexu-esplotazioa, etxeko indarkeria eta giza eskubideak urratzen dituzten gainerako ekintza guztiak;
- Genero-indarkeria prebenitzeko eta horren biktimak babesteko eta laguntzeko politika eta lege bateratuak sortu ditzatela eskatzea estatuetakoko gobernuak eta EBko instituzioei. Emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbulgo Hitzarmena) berretsi dezatela eskatzea gobernu nazionalari;
- Kontuan hartzea gerra eta jazarpenetik ihes eginda gure hiri eta udalerrietara iristen diren errefuxiatuen artean dauden emakume eta haurren behar espezifikoak; beharrezko harrera eta arreta ziurtatzea, eta era guztietako indarkeria eta diskriminazioa eragozteak;

firmada hasta la fecha por más de 1500 ciudades y regiones;

- Promover que quienes hayan firmado la Carta tomen medidas concretas para promover la igualdad a nivel regional y local; hagan uso de las herramientas que pone a disposición el CCRE-CEMR a través de su Observatorio², en línea con los poderes conferidos a gobiernos locales y regionales en los diferentes países; y proporcionen los recursos financieros y humanos necesarios para su implementación;
- Denunciar la violencia que siguen soportando las mujeres en la actualidad, aún en el siglo XXI: se debe combatir toda forma de violencia perpetrada contra las mujeres en la vida pública y privada, incluido el tráfico de mujeres, la explotación sexual, la violencia en el ámbito doméstico y otros actos contra los derechos humanos de las mujeres;
- Hacer un llamamiento a los estados e instituciones de la UE para adoptar unas políticas y legislación comunes con respecto a la prevención, protección y apoyo a las mujeres víctimas de la violencia de género; hacer dicho llamamiento a los estados para que ratifiquen el Convenio del Consejo de Europa para prevenir y combatir la violencia contra las mujeres y la violencia doméstica (Convenio de Estambul);
- Tener en cuenta las necesidades específicas de mujeres y menores refugiados que huyen de la guerra y la persecución, y que llegan a nuestras ciudades y municipios; proporcionarles la acogida y la atención adecuadas y la

- Maila globalean elkarlanean aritzeko borondatea erakutsi dezatela, Nazio Batuen Erakundearen 2030eko Agendaren 5 Helburuak lortzeari begira, horrek xedetzat hartzen baitu emakumeen aurkako diskriminazio forma guztiak ezabatzea.ö
- prevención de toda clase de violencia y discriminación.
- Demostrar su voluntad de cooperación a nivel global para conseguir el Objetivo 5 de la Agenda 2030 de las Naciones Unidas, que tiene como objetivo poner fin a toda forma de discriminación contra las mujeres.ö

Beste aldetik, EH Bilduk beste mozio bat aurkeztu du:

2016 MARTXOAK 8

ERAKUNDE ADIERAZPENA

GOI BURUA

“Feminismotik eraldaketa sozialera

ZIOA

Nazioarteko Egunak aldarri egunak dira, egoera desorekatuak agerian utzi eta eman beharreko aldaketen aldarri eta borroka egunak.

Martxoak 8a, emakume langileen borroka testuinguruan kokatzen da, 1908 urtean oihalgintzan prekarioki eta inbisibilizatuki lanean ari ziren emakume langileek grebari eutsi eta EEBBetako hainbat hiritan manifestaldiak burutu zituztenean.

Handik hona, emakume-gizon eta borroka feministari esker, asko izan dira emandako urratsak emakume eta gizonen berdintasunaren alde, baina ezin ahantzi dugu ere, gaurko egunean zoritxarrez, leku ugarian badela eman beharreko pausurik emakumeen eskubide oinarritzkoenak eskuratzeko bidean.

Gertukoan ere, Euskal Herrian bertan, lege eta araudiek berdintasunaren aldeko marko orokorra ezarria badute ere, badugu eman beharreko urrats ugari. Izan ere, berdintasun faltsuaren diskurtsoa hedatzen dihardu, eta honek, berdintasunaren alde aktibatu beharreko neurriak moteldu besterik ez ditu egiten, egoera irreal bat irudikatuz.

Finantza krisiak eragindako murrizketek lehenik, eta ustez bertatik ateratzeko hartutako hainbat neurrik ondoren, azken urteotako jazarpen bortitzena eragin dute jendarteren eskubide oinarritzkoen galera orokorrean, eta bereziki emakumeen eskubideengan. Eta horrela, diskurtso eta praktiken arteko kontraesanak agerikoak ari dira izaten ari, parekidetasunaren, ekitatearen eta berdintasunaren esparruan.

EHBildutik argi dugu egunerokoa eta guztion lana dela berdintasun erreala lortzeko lanari eustea, erakundeetan eta jendartean, lana eta enplegua baldintza duinetan banatua izan dadin, zaintza lanak partekatuak izan daitezten, afektibitatea eta sexualitatea modu anitzean, libreki eta seguru bizi ahal izan dadin, estereotipoak zein rolak gaindituak izan daitezten, eraso sexual eta sexistak desagertu daitezten,

prekariatateak eta pobreziaak emakume izena eduki ez dezaten, erabakiguneetan aritzeko aukera berak sor daitezzen, besteren artean.

Eta hau guztia lortzeko, jendarte eredu berritua eraikitzeko, neurri normatibo, tekniko eta ekonomiko ausartak hartu behar dira, egungo murrizketak alboratuz.

Horregatik, 2016ko martxoak 8 honetan, Iruran ere badelako zer eginik, ondorengo ebazpen proposamena egiten dugu, Irurako osoko udal batzak onartu dezan.

EBAZPEN PROPOSAMENA

1.- Irurako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du berdintasun aurrekontua igotzeko urtero, 2017tik 2019ko aurrekontu partida orokorretan.

2.- Irurako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du berdintasun saila sortzeko.

3.- Irurako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du berdintasun teknikariaren lan-baldintzak egonkortu eta duintzeko.

4.- Irurako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du Emakumeen Etxea sortzeko, herriko emakume eta talde feministekin elkarlanean.

5.- Irurako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du Ahalduntze Eskola abian jartzeko herriko emakume eta talde feministekin elkarlanean.

6.- Irurako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du Emakume eta Gizonen berdintasunerako Ordenantza lantzeko, herriko emakume eta talde feministekin elkarlanean.

7.- Irurako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du herriko emakumeen errealitatea ikertu eta ezagutarazteko ikerketa beka abian jartzeko.

8.- Irurako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du herriko kale izendegia errebisatu eta emakume izenak ezartzeko.

9.- Irurako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du sortzen dituen idazki guztietan hizkuntza ez sexista eta inklusiboa erabiltzeko.

10.- Irurako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du diru-laguntzetan genero klausulak ezartzeko.

11.- Irurako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du Biolentzia Matxistaren kontrako protokoloa landu eta abian jartzeko, herriko emakume eta talde feministekin elkarlanean.

12.- Irurako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du herriko puntu beltzen mapa osatzeko, herriko emakume eta talde feministekin elkarlanean.

13.- Irurako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du herriko jai eta ospakizunetan parte hartze parekidea landu eta sustatzeko, herriko taldeekin elkarlanean.

14.- Irurako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du udal eskumeneko sail guztietan generoa zeharlerrotasunez lantzeko, horretarako neurri batera bat aurkeztuko duelarik legegintzaldian zehar garatzeko.

15.- Irurako Osoko Bilkurak, dei egiten du emakume eta talde feministek deitutako mobilizazioetan parte hartzeko.”

Olaia Nieto zinegotziak adierazi du abenduaren 3ko (Euskararen Nazioarteko Eguna) adierazpena tratatu zenean hemen adostu zutela bi taldeen arteko akordioa, baina orain ez dutela izan denbora gaia ondo aztertzeke eta adostutako proposamena prestatzeko.

Alkateak proposatu du Eudelen adierazpena onartzea, Bilduren proposamena oso sensiblea delako eta hainbat proposamen aurkezten dituelako; eta horiek ezin dira egun batetik bestera onartu ondo aztertu gabe. Horregatik, Eudelen proposamena onartuko dutela, ez beste proposamenaren aurka daudelako.

Olaia Nieto zinegotziak galdetu du noiz izango den gai hauek aztertzeke konpromiso edo aukera.

Alkateak baietz erantzun du, eta guztiak gonbidatzen dituela lanean hastera.

Bilduren proposamena bozkatu da eta ez da onartu: aldeko 3 boto (EH Bildu) eta aurkako 5 (EA/PNV).

Gero, Eudelen mozioa bozkatu da, eta onartu egin da: aldeko 5 boto (EAJ/PNV) eta 3 abstentzio.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du Bilduren botoa hori izan dela, Eudelen mozioan gutxi zehazten direlako neurriak.

BEDERATZIGARREN GAIA.

GALDE ESKEAK.- Esparru honetan, gai hauek jorratu dira:

A) Alkateak dio sententzia bat iritsi dela euskal presoek kartelari buruz, eta agintzen duela kartel hori kentzea udaletxeko fatxadatik.

Idazkariak adierazi du kendu behar den kartela ez dela orain dagoena, hori kendu egin zela, baina epaiketak jarraitu zuela udal erabakia zegoelako, eta, orain, bertan behera utzi dutela udal-akordioa eta kartela kentzeko agindua onartu. Baina hori frogatzeko, udaletxearen argazkia bidali behar da eta, orain, kartel berria agertzen da.

Alkateak eskatu dio Bildu taldeari pankarta hori kentzeko, sententzia irmoa delako eta, azkenean, alkatearen erantzukizuna delako.

Jose Ignacio Imazek erantzun du taldean erabakiko dutela eta esango diola.

Alkateak erantzun du, bestela, berak zuzenean kenduko duela.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak eskatu du aipamen hori aktan agertzea.

Alkateak erantzun du berak eskatu behar duela bere aipamenak aktan agertzea ez besterenak.

Idazkariari bere iritzia legala eskatu diote, eta berak erantzun du normalean esaten duenak eskatzen duela bere aipamena aktan agertzea.

B) Olaia Nieto zinegotziak dio badakitela Udalbatzaren dokumentazioa 48 ordu aurretik bidali behar dela eta, gainera, ostiralean eguerdiko ordu bietan jasotzen dutela, baina eskatzen dute aurreko ostegunean bidaltzea, hobeto aztertzeke denbora izateko.

Idazkariak aukera hau proposatu du: aurreko ostegunean bidaltzea, behintzat, deialdia eta prest dagoen dokumentazioa, eta ostiralean geratzen dena bidaltzea; eta hori e-mailez izango da. Gainera, arazorik ez izateko, ostiralean

inprimatuko da dokumentazioren kopia, eta ale bat utziko da udaletxean, paperean, edo nahi den tokian.

Udalbatzak aho batez onartu du.

C) Olaia Nieto zinegotziak galdetu du zaborraren tasaren hobaria nola dagoen.

Alkateak erantzun du datorren astean hasiko direla gai hori gauzatzen.

Olaia Nieto zinegotziak dio hori 2105eko hobaria dela, baina 2016ko hobariarekin zer gertatuko den.

Alkateak erantzun du konpostajea egitea edo ez egitea ezin dela konprobatu eta, orduan, 2016. ekitaldian ez dela emango hobaririk.

D) Olaia Nieto zinegotziak galdetu du inprimagailuaren gaia nola dagoen.

Idazkariak erantzun du bera arduratuko dela Bilduko zinegotzi batekin inprimagailua erosteaz.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:05ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari naizen heinean.

ALKATEA

IDAZKARIA